

OINARRIAK:**Argazki
Digital-Lehiaketa**

14 Urtetik 25era Bitarteko Gazteentzat

**Certámen de
Fotografía Digital**

Para Jóvenes de 14 a 25 Años

**gazte
klik**

2012

**EKOLOGIA
ETA GAZTERIA**Naturaren Gaineko Hainbat
Begirada Hirian Zehar**ECOLOGÍA Y
JUVENTUD**Miradas Sobre la Naturaleza
en la Ciudad**Jasotzeko epea**
Urriaren 12ra
Plazo admisión
Hasta el 12 de octubre**GAIA****EKOLOGIA ETA GAZTERIA.**

Naturaren gaineko hainbat begirada hirian zehar.

- Natura, ikuskizuna / Begiratzen digun natura.
- Natura desnaturalizata / Hiriaren naturalizatutasuna.
- Agerian dagoen Natura / isilekoa; ordenatua / desordenatua; sostengatua / iraunkorra; otzandua / basatia.
- Lorategi inbaditzailea / inbadituta; publikoa / pribatua / babestuegia / abandonatua; Makroa / Mikroa.
- Hiriko baratzeak. Nekazaritza terrazak.
- Animalia-erreinua / Landaren erreinua / Beste erreinu batzuk.

PARTE HARTZAILEAK

Gasteizen bizi diren edo ikasten duten 14 urtetik 25era bitarteko gazteak.

Aukeratutako eta saritutako parte-hartzaileei Gasteizen daudela egiaztatzeko agiriak eskatuko ahal zaizkie.

Parte hartzaileek ezin dute saria jaso bi ediziotan jarraian; hala ere, bere lanak hautatu ahal izango dira lehiaketa honen hainbat erakustalditarako.

MODALITATEA

Lanak argazki sortetan aurkeztuko dira. Sortek 3 argazki izango dituzte gutxienez eta 5, gehienez.

Argazkiak. Lehiaketan parte hartuko duten argazkiak honela bidaliko dira:

- CD batean, JPG formatua, edo
 - Bidali helbide elektronikoa honetara: gazteria@vitoria-gasteiz.org
- Lehiaketan parte hartzaileak edozein teknika erabil dezake; kameraz aparte, mugikorra ere erabil dezake.

ARGAZKI KOPURUA

Argazkilari bakoitzak sorta bi besterik ezin du aurkeztu; gutxienez, 3 argazki dituen, edo gehienez, bost.

LANAK BIDALTzea

Argazkiak CD batean aurkeztu behar dira, sinatu gabeko gutunazal batean sartuta. Azalean jarri behar dira lanaren izena eta "Gazte Klik" erreferentzia. Barruan sartu behar da beste gutunazal bat datu eta dokumentu hauekin: egilearen izen-abizenak, adina, harremanetarako telefonoa, posta elektronikoa

eta NANaren fotokopia. Gutunazal horren kanpoaldean jarri behar dira lanaren izena eta "Gazte Klik" erreferentzia.

Argazkiak biltzen dituzten CDak bidaltzeko:

- Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoa. Plaza Berria, 01001 - Vitoria-Gasteiz. Orduetgia (astelehenetik ostiralera): 10:00 - 14:00 eta 17:00 - 19:00 (astelehen eta ostiral arratsaldeetan, itxita).
- Argazkiak gazteria@vitoria-gasteiz.org helbidera bidaliz gero, mezuan honako datu hauek adierazi beharko dira: izen-deiturak, adina, harremanetarako telefonoa eta NAN zenbakia.

Sorta bakoitzak izenburua izan behar du. Izenbururik gabekoak ez dira lehiaketan sartuko.

ERAKUSTALDIA

Aurkeztuko diren argazkien sortekin erakustaldi bat egingo da 2012ko azarotik abendura bitartean. Beharrezkoa balitz, epaimahaiak aurkeztutako lanen artean kalitatetik onenekoak aukeratuko ditu eta kontuan hartuko da erakustaldirako zenbat leku dagoen.

Erakustaldian egongo diren sorta bakoitzetik epaimahaiak argazki bat aukeratuko du 2012ko azarotik abendura bitartean hirian udalak kudeatzen dituen publizitate euskarrietan jartzeko. Izan ere, horietako argazki bakoitzeko 500 postalak argitaratuko dira erakustaldia zabalteko.

Aldi berean, Vitoria - Gasteizko Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) landuko da erakustaldi birtual bat aurkeztutako lanekin. Beharrezkoa balitz, epaimahaiak aurkeztutako lanen artean kalitatetik onenekoak aukeratuko ditu eta kontuan hartuko da erakustaldirako zenbat leku dagoen.

SARIAK

Lau sari emango dira. Sariak ezin izango dira metatu, eta, hortaz, ez zaizkio egile berari emango.

Sari bakoitzak honako sari hornidura izango du:

- 300 euroko argazki-bono trukagarri bat.
- Lau sarituek parte hartuko dute taldeko erakustaldi batean gure hiriko argazkilaritza eta artean adituak diren tutoretzapean. Erakustaldia 2013ko lehenengo hiruhilekoan izango da. Katalogo bat argitaratuko da parte-hartzaileen lana eta ibilbidea jasoko dituen.

JASOTZEKO EPEA

2012ko uztailaren 1etik urriaren 12ra bitartean, biak barne.

EPAIMAHAIA

Vitoria-Gasteizko Udalaren Kultur Plangintzaren eta jaien Zerbitzua Gazteria Atalak izendatuko du epaimahaiak. Epaimahaiak lanen originaltasuna balioztatuko du, bai eta gaiarekiko lotura, kalitate artistikoa eta teknikoa ere.

EPAIA

Azaroko lehenengo hamabostaldian zehar argitaratuko da epaia. Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) nahiz Gazteen Argibideetarako bulegoan ikusgai jarriko da.

SARI BANAKETA

Erakustaldiaren inaugurazioan egingo da.

Sari banaketan ekitaldi bat egingo da Araban argazkilaritza lantzen duten pertsonen arteko harremanak sustatzeko.

OHARRAK

Lehiaketa edo oinarri hauei buruzko edozein galdera argitzeko honako posta elektronikora jo dezakeuz gaian Gazte Klik adieraziz: gazteria@vitoria-gasteiz.org

Argazkiek argitaratu gabeak eta jatorrizkoak izan behar dute.

Aurkeztutako argazkiak Gazteria Atalaren esku geratuko dira, eta argazki horiek erabili nahiz kopiatzeko eskubidea beretzat gordetzen du, betiere egilearen izen-abizenak aipaturik.

Lehiaketaren antolatzaileek argazkien baliozkotasuna erabakiko dute, eta argazkiren batek baldintza teknikoak betetzen ez baditu edo arrazoiren batengatik (iraingarria izateagatik, esaterako) lehiaketaren izpirituarekin bat ez datorrela uste badute, ez argitaratzea erabaki ahalko dute.

Gomendatu den tamainaz gorako argazkiei webgunean argitaratzeko neurri egokiak emango zaizkie.

Parte hartzeak oinarri hauek guztiak, bai eta epaimahaiaren erabakiak ere, onartzen direla adieraziko du.

Antolatzaileek bere esku izango dute oinarri hauetan jaso ez den edozein gorabehera ebaztea.

Ematen ari zaren datuak erakunde honek dituen datu pertsonalen fitxategian sartuko direla jakinarazten dizu Vitoria-Gasteizko Udalak, EKINTZEN KUDEAKETA ETA ZABALKUNDEA izena duen fitxategian zehazki. Datu Pertsonalak Babestari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez. Fitxategi horren helburua udal eskumenen alorrean Udalak antolatutako kultur edo gizarte ekintzak kudeatu, zabaldu eta sustatzea da. Zure eskubideez baliatu nahi baduzu -dagozkizun datuak ikusi, aldatu, ezetzatu edo kontra agertu-, jo ezazu udalburuko Argibide Bulegora (Espainia plaza, z/g - 01001 Vitoria-Gasteiz) edo Herritarrei Laguntzeko Bulegoetara.